

## **BERMEO / Pako Aristik literatur tailerra eskainiko die institutuko ikasleei**

### **Batxilergoko lehen mailan dauden gazteen sormena eta literaturzaletasuna sustatu gura ditu Euskara Sailak**

Maite Zabalondo

Udaleko Euskara saileko arduradunek, gazteen sormena eta literaturzaletasuna sustatzeko asmoz, Bermeoko Institutuko Batxilergoko lehen mailako ikasleentzat literatur tailerra antolatu dute.

Oraingo honetan, Pako Aristi idazleak eskainiko du literatur tailerra: urtarrilaren 8an, 15ean, 22an eta otsailaren 5ean. Egun bakoitzean hiru talde izango dira eta bakoitzari ordu beteko eskola emango die Aristik. Guztira, 78 ikasle izango dira, hiru taldetan banatuta. Lehen taldeak 11:45ean eukiko du tailerra. Bigarrenak 12:45ean eta hirugarrenak 13:45ean.

Literatur lantegia Bingen Goitia Bermeoko Institutuko Hizkuntza Normalkuntzako arduradunagaz eta Idazleen Elkartegaz batera prestatu dute Euskara saileko arduradunek. Institutuko programazioa kontuan hartzen dute tailerra antolatzeko orduan. Eta gero, Idazleen Elkartegaz hitz egin eta zeinek emango duen urteroko tailerra erabakitzen dute. Balorazio positiboa

Euskara sailak, urtero, bi literatur tailer antolatzen ditu. Bata, herri mailan (GIZ eta Liburutegiagaz batera), eta bestea, institutuan. Orain hiru-lau urtetik hona, zenbait idazle izan dira eta batzuek errepikatu ere egin dute. Pako Aristi, adibidez, 2005ean ere izan zen Liburutegian tailerra ematen. Oraingoan, institutuan izango da. Kalitatezko idazlea da Pako Aristi, esan du Maite Alvarez de Zarate Euskara saileko teknikariak.

Yolanda Arrieta, Julen Gabiria, Edorta Jimenez... bezalako idazleak pasatu dira literatur tailerretik.

Urtero oso balorazio ona egin dugu eta uste dugu horrelako tailerrak egiten jarraitzea guztiz aberasgarria dela.

Aurten Aritz Gorrotxategi idazlea gonbidatu gura izan dute, baina ez da posible izan. Hala ere, pozik daude Pako Aristi berriro etortzeagaz. Tailerra batxilergoko lehen mailakoentzat baino ez da izango. Euskara teknikariaren ustez, horrelako tailer batean parte hartzeko adin egokia dute. Euskaraz sortzeko gaitasuna lantzeko momentu ezin hobean daudela uste dugu.

Izan ere, hizkuntza sakontzeko baliabide bezala eskaintzen diete Euskara saileko arduradunek literatur tailerra gazteei.

Datorren astean, beraz, institutuko tailerra hasiko da, baina hemendik hilabete batzuetara gainontzeko herritarrentzako bigarren literatur tailerra antolatuko dute. Hala ere, oraindik ez dakite nor izango den gonbidatua.